

## **Aniztasunaren jaia**

Sexu osasuna

*Inma eta Iker sofan eserita azaltzen dira. Inma telefono mugikorrera begira ari da.*

**INMA**

Nekane da, larunbatean Alde Zaharreko taberna batean jai bat antolatzen ari direla dio...

**IKER**

Nekane?

**INMA**

Bai, aurrekoan aurkeztu nizun neska beltzarana...

**IKER**

Jai bat? Bikain bada!

**INMA**

Aniztasunaren inguruko jai bat da.

**IKER**

Oso ondo, jai anitza beraz...

**INMA**

Sexu aniztasuna ikusaraztea da festaren helburua.

**IKER**

Ondo da, ondo da... Festa bat esan duzu, ezta?

**INMA**

Zer den ere ez dakizu-eta!

**IKER**

Bai, beno... ez.

**INMA**

Ikusten dut, bai.

**IKER**

Zer da ba? Orgia bat?

**INMA** (haserre)

Ez Iker, ez!

**IKER**

Badakit, neska, baina badaezpada diot...

**INMA**

Sexu identitate eta joera ezberdinetako pertsonak bilduko dituen festa bat da.

**IKER**

Ondo da, nigatik arazorik ez. Gainera, nik lagun homosexual mordoa ditut...

**INMA**

A, bai? Nor ba?

**IKER**

Beno, ez naiz orain guztien izenak ematen hasiko...

**INMA**

Esan, esan...

**IKER** (pentsatzen jarrita)

Bada... Jagoba adibidez gaya da.

**INMA**

Ez, ez da horrela.

**IKER**

Zer?

**INMA**

Ezetz, ez dela gaya, bisexuala da.

**IKER**

Bueno, % 50ean behintzat asmatu dut...

**INMA** (gero eta haserretuago)

Falta zena... Hamaika entzuteko jaiok gara!

**IKER**

Tira, ba... Zenbat ezagutzen dituzu ba zuk?

**INMA**

Jaira doazen nire lagun gehienak.

**IKER**

Bai, zera! Orain Janire lesbiana dela esango didazu, ezta? Dozenaka bider ikusi dut-eta nik mutilekin!

**INMA**

Ez, Janire ez da lesbiana.

**IKER**

Ikusten?

**INMA**

Bisexuala da Janire ere.

**IKER**

Zer?

**INMA**

Laura da lesbiana.

**IKER**

Laura?

**INMA**

Bai, eta Hector ere **orain** gaya da.

**IKER** (gero eta gutxiago ulertzearen aurpegia jarriz)

Orain? Eta... Natxo?

**INMA**

Gaya.

**IKER**

Kristina?

**INMA**

Lesbiana.

**IKER**

Jasone?

**INMA**

Transexuala.

**IKER**

Markos?

**INMA**

Intersexuala.

**IKER**

Intersexuala...

**INMA**

Ez dakizu zer den.

**IKER**

Bai, beno.... ez. Ez naiz ezertaz enteratzen ari.

**INMA**

Ba jaian ezagutuko dituzu. Ea orduan enteratzen zaren...

**IKER**

Ikusten dudanez gu biok bakarrik izango gara heterosexualen ordezkari...

**INMA**

Egia esan, zu bakarrik izango zarela uste dut...

**IKER**

Zer?

**INMA**

Hobe horretaz festan hitz egiten badugu...